

Alasdair MacIntyre

MARK C. MURPHY (ARG.)

Cambridge: Cambridge University Press, 2003, xii + 224 or.

Hogeigarren mendearen azken hiru hamarkadetan, John Rawlsekina batera, Alasdair MacIntyre izan da filosofia moralaren arloan pentsalari nagusia. Rawlsek, liberalismoaren defentsan, *A Theory of Justice* eman zuen argitara 1971n, 1958tik aurrera argitaratutako hainbat artikuluri liburu trinkoaren gorputza emanez eta utilitarismoaren eta intuizionismoaren azpitik kontraktarismora bueltatuz; Locke, Rousseau eta, batez ere, Kanten bidera, komunitarismoa ulertzeko modu baten alde. MacIntyre eskoziarrak *After Virtue* (aurrerantzean *AV*), liberalismoaren kritika gogorra, argitaratu zuen 1981ean, aurretik egindako lan batzuk bilduz, baina bereziki gogoeta sakona egin ondoren berak filosofia moralaz 1971. urtera arte defenditutako posizioei buruz. Gogoeta autokritiko zaila 1977. urtera arte, orduan hasi baitzen bere ikuspegi filosofiko berriari forma ematen, *AV* liburuarekin batera, *Whose Justice? Which Rationality?* (1988) (aurrerantzean *WJWR*) eta *Three Rival Versions of Moral Inquiry* (1990) (aurrerantzean *TRV*) liburuetan azaldu zuena.

Ez da ahaztu behar zein diren, oinarritzko ikuspegiari dagokionez, autokritikatzen dituen liburuak: *A Short History of Ethics* (1966), *Secularisation and Moral Change* (1967) eta *Against the Self-Images of the Age* (1971). Hiru liburu horietako lehenbizikoan —filosofiako neure ikasle garaian gogoz eta begi oso kritikoz irakurri genuena—, berehala ikusten zen gaztetan «marxista morala» izandako MacIntyre aldatu egin zela, Hegel eta Marxi buruz idatzitako kapituluak Marxi ikuspegi moralala falta izan zitzaizkion leporatuz, moralitateari ez omen ziolako lekurik eman langile mugimenduaren barruan, ezta kapitalismoaren indibidualismotik sozialismoaren elkartasunera pasatzerakoan ere, eta, are gutxiago, gizarte sozialistan edo komunistan izan beharko lukeen tokia batere mugatu gabe utziz. Liburu horretako hamabosgarren kapitulu horren bukaera oso adierazgarria da. Bernstein marxista errebisionistak Kantena moral formalera eramanez nahi omen zuen langile

mugimendua eta Kautsky marxista zientifikoak, berriz, utilitarismo moral basatienera. Ez marxista zientifistekin ez humanistekin zetorren bat MacIntyre. Ordurako ezta inolako marxismorekin ere, eta, zer esanik ez, ezta garai hartan filosofia anglo-amerikarrean indartsu ziren emotibismoarekin eta preskriptibismoarekin ere. Kontuan hartu etikaren historia argitaratu eta bi urtera *Marxism and Christianity* eman zuela argitara.

Mark Murphyk editatutako liburuak gauza on asko ditu. Gauza txar dexente ere bai. Liburuak, ikuspegi ezberdinen bidez, MacIntyrenen filosofia moralaren eta politikoaren eboluzioa ondo azaltzen du eta gaur egun arlo horietan defenditzen dituen posizioak zuzen samar deskribatzen dira bertan. Baina filosofoari egiten zaizkion kritika «ideologiko» asko neurritz kanpokoak dira, kasu batzuetan eskuinaren barrena oraindik bide gehiago egin beharko lukeelakoan.

AV da MacIntyrenen liburu nagusia. Ondoren idatzi dituen liburuak horren jarraipen eta garapen dira, 1981ean argi azaldu zuen proiektuan integratutakoak. MacIntyri buruzko liburuaren sarreran, Murphyk ondo seinalatzen du proiektu horren nondik norakoa 1999an argitara eman zen *Dependent Rational Animals* liburura arte. Ia hogei urte horietan mamitzen da MacIntyrenen pentsamendu «heldua». Sarreraren lehen atalean MacIntyre gaztearen aukera marxista aurkezten da, gizarte kritikarako erabiltzen zue-na, kristautasunaren ikuspegi batekin eta psikoanaliarenarekin bat eginez. Gizarte modernoaren erakunde sozial, kultural, ekonomiko eta politikoak errotik kritikatu nahi zituen, horretarako erakunde horien inguruan sortutako ideologiak kritikatu. Marxismoaren eragina horretantxe ikusten zuen, seguruenik pentsamendu ekonomiko eta politikoaren historia eta, oro har, ideien historia arlo akademiko oso landuak izan direlako beti Britainia Handian (gogoratu, esaterako, Isaiah Berlinen lan mardula). Lan indarra merkantzia bihurtzearekin batera, langilea bera merkantzia bihurtzen zela uste zuen MacIntyrek: hortik alienazioa, hortik gizakia gizakiarekin komun bizitzeko aukeraren haustura. Kapitalismoaren aurkako oinarritzko jarrera hori gaur arte beti mantendu du filosofoak, arrazoi ideologikoez arrazoi moralei bidea eman badiete ere. Interesgarria da, marxismoaren barruan bere leku propioaren bila, ez zetorrela bat ez estalinismoan bukatu zuten «sozialista zientifikoekin», ez eta Britainiar Ezker Berriko humanistekin ere. Ez zetorren bat ez Kautskyren ikuspuntu «zientifikoarekin» (materialismo historikoak kapitalismotik sozialismora pasatzeko legeak ematen ditu), ez eta Bernsteinen marxismo «errebisionistarekin» (gizarte kapitalistaren kritika moralak sozialismoaren aldeko inperatibo moralera darama, bizimodu kapitalista bizimodu sozialista bihurtzeko bitarteko moralak bide batez mugatuz). Marxismo «zientifikoa» hutsala zela zioen, bai moralaren aldetik, bai zientziatasunaren aldetik. Baina, Bernsteinen marxismo «humanista» oinarririk gabekoa iruditzen zitzaion, azpian Kanten filosofia morala zue-

lako, formala eta orokorra bai, baina psikofilosofia anglo-amerikarraren ildo historikoetatik urrun.

Sarreraren bigarren atalean bi ukazio horien efektua aztertzen da. MacIntyren arabera, bi posizio horiek kritika morala inefektiboa eta ebaluazio morala ulergaitza bihurtzen dituzte, gertaeren eta balioen arteko lotura erabat deusezten dutelako. Alde batetik, gizarte kritika autoritatezko inolako oinarri moralik gabe egiten delako, ikuspegi morala ilusio huts edo epifenomeno kontsideratuz eta, bestetik, berriz, humanismoaren kariaz moralaren autonomiari dagozkion aukerak historiarekin, antropologiarekin, psikologiarekin edo soziologiarekin lotu gabe egiten direlako. Neoaristoteliar (eta gaur egun, funtsean, tomista) den MacIntyrek erdiko bideren bati heltzen dio, eta izanetik izan beharko lukeenaren arteko bidea ez du betetzen izango denaren bermea ematen digun horrekin. Oinarrian gizakiaren izaerari buruzko kontzepzio bat jartzen du eta, ondorioz, *benetako* giza desioa jotzen du etikaren zimendutzat. Hortxe dago moralitatearen funtsa: horrelako desioaren izaeran, gogoan izanda gizakia historikoki kondizionatua dagoela eta muga horien barruan egiten den etikak erakundegarria izan behar duela. Historizismoan ez erortzeko, historia ez du sartzen bakarrik pertsona onaren bizitza gobernatzen duten bertuteen eta erregelen esparruan, baita metateoria moralean ere, teoria moral substantiboak justifikatzeko erabiltzen diren arrazionalitate eskemei dagozkien oinarrietan ere. Horrek erlatibismo gaindiezinerara eramango luke MacIntyre, eta honako hau da AV liburuak duen helburu nagusia: historizitatea nola mugatu metateoriaren mailan erlatibismoan ez erortzeko arrazionalitateari dagokionean. Hemenetik dator praktiken azterketa komunitateen barruan eta, honen funtzioan, bi teoria moral alderatzerakoan bata bestearen gainetik hobesteko irizpidea.

Sarreraren hirugarren atalak AV liburuaren garrantzia markatzen digu. Ikuspegi moralen artean batzuk besteak baino zuzenagoak direla esateak filosofikoki arrazionalitate kontzepzio baten aldeko aukera egitea eskatzen du. AVn ondo jasotzen da eske hau, baina WJWR liburuaren azken hiru kapitulueta iritsi behar da MacIntyren erantzuna zein den jakiteko, justizia eta arrazionalitate praktikoaz filosofiaren historian izan diren posizio nagusiak aztertu ondoren. Murphyk lerro gutxitan berak atondutako liburuaren zazpi kapituluak aurkezten ditu sarreraren bukaeran. Gatozen, ba, horietako bakoitzera.

Gordon Grahamek *MacIntyre on History and Philosophy* izeneko kapituluak idatzi du. MacIntyrek etikaren historiari buruzko liburua idatzi zuenean filosofiaren (berezi, filosofia moralaren) eta historiaren arteko harremanaren sakontasunaz ohartarazi nahi izan gintuen, aulkian eserita buruari bueltak emanaz, hau da, gogoeta erreflexibo hutsez, moralitateari buruz ezer zuzenik ezin zitekeela esan seinalatuz. AVn eta ondoko liburue-

tan harreman hori nola ulertu behar den zehazten saiatu da. Egia da haren liburu nagusiaren lehen kapituluak (*A Disquieting Suggestion*) dituen lau orri eta erdi famatuek, zientziaren gizarte egoera katastrofiko asmatu batekin analogia eginez, aurkeztu nahi diguten egoera morala ez dela bakarrik logomakiazkoa, osoki zatitua baizik; bai gizarte mailan, bai gizabanakoaren mailan, indibidualismo moralaren ondorioz moralitatea inolako sostengu arrazionalik izateko ahalbiderik gabe geratu balitz bezala. Liberalismo politikoaren (eta ekonomikoaren) azpitik ilustrazioak omen du errua, emotibismoari ere bideak zabaldu omen zizkiolako. Grahamek ondo adierazten ditu analogia behartu horren mugak, eta zalantzan jarri ere bai MacIntyrenek Ilustrazioaz duen ikuspegi interesatu beltz hori; bere nazioaren kasuan, Eskoziako filosofia enpiristari eta «zentzu arruntezkoari» balio osoa kenduko liokeena. Historiaren barruan erabaki nahi du MacIntyrenek filosofia moral baten nagusitasun arrazionala beste guztiekiko, eta filosofia moral hori izan neoristolotiarra da, tradizio intelektual baten arabera mugatua, Aquinoren eskuetan agustinismoaren eragina kontuan hartuta sortutakoa. Gauza da «helburu» honetara iristeko gainerako aukera filosofiko guztiak errespeturik gabe gutxiesten dituela. Grahamek ondo ematen du horren berri eta kritikoki ondo situatzen du MacIntyreren historizitatearen izaera metaetikoa.

Bigarren kapitulua Jean Porter teologoak idatzia da. Tradizio nozioa du aztergai. Izan ere, MacIntyrenek ez du inoiz zehatz adierazi zer hartzen duen funtsezkotzat nozio horretaz; eta, gainera, nozioaren zabaltasunari dagokionez, aldaketak daude AVtik TRVra. Azken liburu horretan azaltzen da argienik haren ikuspegiarik oinarrituena. Porterren lana deskriptiboa bezain apologetikoa da, arras apologetikoa. Lehenik bertutearen kokaleku moduan azaltzen da tradizioa. Katastrofe moraletik libratu omen den komunitate baten praktikan salbatu omen dira bertuteak, eta horri esker omen dago gaur bizirik bersorkuntza moralerako posibilitatea, tomismoaren sintesi aristoteliar agustinistari zor omen zaiona. AVtik WJWR liburura pasata, arrazionalitate praktikoaren azterketa historikorako ardatz bihurtzen da tradizio nozioa, batez ere Ilustrazioa (gehien bat eskoziarra) kritikatzeko; eta, horren harira, liberalismo politikoa eta soziala ere bai. Azkenik TRV liburuan Ilustrazioaren gauzatzerik nabariena izan ziren Entziklopedisten aukera moralak kritikatzearekin batera, genealogisten (Nietzsche nagusi) azalpen moralak baztertzen dira. AVren azken kapituluan esana zuen: Nietzsche liberalismo indibidualistaren azken muturreko fruitua da. Kapitulu horretan bukaeran, Trostkyk marxismo sobietar optimistari egindako kritikak ekartzen ditu MacIntyrenek gogora, eta esan ere esaten digu, barbaro moralak gizarte modernoaren barru-barruan sartuta omen daudenez, komunitate txikien bidez, beneditarren eran, egindako lanetik datorrela argia eta zuzentasun moralaren aukera. Jakina, MacIntyreren kritika guztien helburua, tradizioa forma intelektual eta azterketa moralaren moduan

hartzten duenean, tomismoak eskaintzen duen filosofia defenditzea da, Leon XIII.aren *Aeterni Patris* entziklikak (1879) tomismo berrituaren zabalanderako izan zuen garrantzia espreski aitortuz (geroaxeago Pio XI.ak hedatu eta sakondu zuen ildoak, hain zuzen).

Hirugarren eta seigarren kapituluek lotura argia dute. Hirugarrenean, Stephen Turnerrek MacIntyreren eragina aztertzen du gizarte zientzien filosofian. Ahul samarra da kapitulu hau. MacIntyreren lehen argitalpenak kontsideratzen dira, bai ekintzaren filosofian, bai marxismoaren inguruan; baita Weberren aurkako ariketa etengabearen ere, katolikotasunaren defentsan MacIntyrek protestantismoa jotzen baitu irrazionaltzat, sinesmenen (eta usteen) mailan kontraesan bezalako dagoela argudiatuz. Berrero ere arrazionalitate kontzeptua dago jokoan, eta, bi muturretan kapitalismoaren liberalismoa eta sozialismoaren marxismo estalinista jarriz, erdibide frontikorako puntua mugatu nahian ibili da eskoziarra filosofia sozialean. Ekintzaren filosofiara bueltatu zen joan den mendeko 80ko hamarkadan. Baina ordurako (komunitate barruko) praktika kontzeptua oso landua zuen, AVren bigarren edizioaren (1984) «*Postscript*»-en aditzera ondo ematen denez, bide batez filosofia analitikoak historizitateaz duen arduraz gabezia salatuz eta filosofia moral tomistak teologia biblikoarekin izan behar duen harremana seinatuz. Seigarren kapitulua MacIntyreren filosofia politikoaz Mark Murphyk idatzitakoa da. AVren ondotik egindako lana hartzen da kontuan. Kapitulu laburra da, estatuaren arazoan zentratua. Liburuaren barruan kritikoa. Filosofia politikoak gizartean agintearen (agintzearen) justifikazio politikoak eskaini behar dituela uste du MacIntyrek, eta, bereziki, erakunde politikoetan ematen den agintea aztertu behar duela. Estatu modernoak, ordea, arazo hori desbideratu egin omen du, agintearen nondik norakoa arakatu beharrean, legitimitate politikoa ezarri delako arazo nagusitzat; hau da, herritarrak behartzearen justifikazioa aztergune bihurtuz. Filosofia morala gaur egoera nahasi bezain ilunean dago, eta filosofia politikoa ez dago egoera hobean eskoziarraren aburuz. Estatu modernoak bere burua «neutralizatzen» hartzen omen du, interes publikoaren izenean obedientzia exijituz. Horren adierazpenik onena justiziari buruzko kontzeptio neutralista omen da; inkoherentea, itxuraz, bai teorian, bai praktikan. Komunitarismoa ere ez da irtenbidea, estatuaren politika mantentzen badu. Ez dago estatu moderno hobetzeko biderik, eta, libertarismoan erori gabe, komunitate lokaletan bakarrik ematen den praktika moral zuzenetan justifika daiteke agintea. Praktika horiek osatzen dute oinarria; praktika politikoa bigarren mailakoa omen da, funtsezko praktika horietan soilik izan dezakeelako lekua deliberazio komun efektiboak. Murphy, liburu osoaren editorea, oso kritikoa da horren guztiaren aurrean. Batetik, MacIntyrek, liberalismoa salatzeke, estatuaz duen ikuspegia ez dela errealista uste du; eta, bestetik, praktika politikoari buruzko ideia, erredukzionista izateaz gain, inkoherentea delakoan dago.

Bosgarren kapituluan, David Solomonek MacIntyreren lana gaurko filosofia moralaren aurrean jartzen du. Eta hori bi esparru kontuan hartuz: metaetika eta etika normatiboa (alboan lagatzen du etika aplikatua). Lan hori erabat deskriptiboa da. Lehen esparrua azaltzeko *A Short History of Ethics* hartzen da aztergai, batez ere azken bi kapituluak. Azken aurrekoan erreformistak (Burke eta Goodwin daude hor), utilitaristak (Bentham, James Mill, John Stuart Mill heterodoxoa eta, azkenik, Sidgwick sartzen dira bertan) eta Oxfordeko idealistak (Green idealista erreformista eta Bradley indibidualista metafisikoa). Azken kapituluan, filosofia moral modernoaren azterketan, lehenik Mooreren eta horren jarraitzaile Prichard, Ross eta Carriven intuizionismoa kontsideratzen da; gero, horien aurkako erreakzio ez-kognitibista, Collingwood, Ayer eta Stevenson lanen bidetik, Hareren ekarpenetara iristeraino; eta, azkenik, intuizionismoaren eta ez-kognitibismoaren aurkako erreakzio «naturalista», Foot, Geach, Toulmin, Searle eta, neurri batez, MacIntyre bera ere tartean zirela. Edozein modutan ere, kapitulu hori emotibismoaren eta preskriptibismoaren kritika zorrotz batekin amaitzen da, horrela bukatuko lirakeelakoan amaierarik gabekoak uste ziren eztabaida metaetiko britainiarrak. Etika normatiboan lau aukera nagusi zeuden: ikuspegi deontologikoa, kontraktarianismoan edo Kanten arrazionalismo formalean oinarritua; ondoriozkotasunean errotutako teoriak; bertuteen etika, aristoteliarra edo neurri batez humearra; etikan antiteoria sostengatzen zuten eskeptikoen posizioa. MacIntyrek ez du zuzenean sartu nahi izan lau horietako batean, nahiz hirugarrenetik laguntza jaso duen AVn filosofia moral nearistoteliar baten alde egiteko, gerora garbi asko Aquinoren bahe-tik pasaraziko zuena.

Azken kapituluan, Terry Pinkardek modernitateaz MacIntyrek egindako kritika aztertzen da. Joan den mendeko azken hogeita bost urteetan postmodernitate izeneko mugimendu intelektualki ahulean ibilitako filosofo arinek ez bezala, MacIntyrek Karl Polany eta Max Weber hartzen ditu kontuan modernitatearen oinarri ekonomiko, politiko eta ideologikoen izaera historikoa arakatzeko. Frantziako iraultza burgesarekin hasi, eta kapitalismoaren nahiz sobietar sozialismoaren garapenarekin segi, modernitateak gaur hartu duen forma da arazoa; ez aro premodernoren batera itzultzeko, baina bai indibidualismoa kritikatzeko eta indibidualismoaren gainean eraiki diren eta justifikatzen diren gizarte egituren izaera «naturala» errotik uxatzeko. MacIntyreren arazoa hemen ere morala da, gizarte ez indibidualista baten sustrai moralentzat alternatiba bat proposatu nahi duelako, akordio hutsetik kanpokoa eta erakundeen erabilpen instrumentalista batetik urrun. Oinarrian «egileaz» edo «agenteaz» hartzen dena dago, eta Kanten arrazoi praktikoko formalaren kritika (Kanten moralitateari buruzko ikuspegiaren kritika), ez baitu alferrik defenditzen modernitateak txikitu dituen tradizio batzuk oraindik zutik dirautela eta gaur modernitatea bera erabat zatitua dagoela; bai gizarte egituretan, bai arrazionalitate praktikoa buruzko ikus-

puntuetan. Pinkarden lana deskriptiboa da, eta apenas arazorik jartzen dion MacIntyreren kritikari; gauza bat baita modernitatea kritikatzea eta bestea «alternatiba» bat proposatzeko bidea zabaldu duela uste izatea.

Azkenerako laga dugu laugarren kapitulua, MacIntyrek filosofia moral modernoari («modernistari») egindako kritikaz J. L. A. Garciak egindakoa. Apologetikoa bezain ahula. Tomismoa besterik gabe defenditzeko idatzitakoa, filosofia «modernista» guztien aurka (guztiak batera hartuz, berezitasunik gabe, teologo katoliko ortodoxoek modernismoaren kontra egiteko erabili zituzten prozedurak erabiliz). Ematen du, gainera, irakurleak Aquinoren *Summa Theologiae* irakurri eta predikatzen deitzen dituela Garciak, MacIntyrek tomismoari emandako indarra aski ez delakoan edo.

Liburu hau barrutik desorekatu samarra bada ere, badira bertan ekarpen informatibo eta kritiko interesgarri batzuk. Bukaeran bibliografia ona dator, MacIntyrerena eta hari buruzkoa, kapituluetan azaldutako erreferentziaz gain. Indizearekin amaitzen da.

Jesus M. Larrazabal

ILCLI